

# Negutegien erabilera ekologikorako gida argitaratu dute



Euskarazko material teknikoaren gabezia ikusita, negutegien erabilera ekologikoa egiteko gida tekniko bat argitaratu dute elkarlanean Ekolurra Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluak eta Biolur Gipuzkoa nekazaritza ekologikoaren aldeko elkarteak.

Aurkezpenean azaldu zuteenez, kantauri isurialdeko klima baldintzetan baratze ekologikoetako negutegien maneiorako gako nagusiak ematea da lanaren helburua. Negutegiak ekoizpen azalera osoaren %10-15 inguru dira Euskal Herrian, baina azken urteetako joera da

gehiago jartzea, bideragarritasun ekonomikoa bilatu aldera.

Kantauri isurialdeko baldintzetan negutegien erabilera ekologikoari buruzko material teknikoren gabeziari erremedioa jarri asmoz, 64 orrialdeko txosten monografikoa landu da. Pantxika Halsouet baratzezaintza ekologikoko teknikari lapurtarraren ekarpena nabarmendu dute, bere materialetan oinarritu baita lan berri hau.

Gidarekin, negutegien gaia landu nahi izan dute, ikuspegi anitzetatik, «baina astunegia egin gabe». «Baratze profesional batean negutegien justifikazioa, dauden aukera ezberdinak eta berauen erabilera arrazoitu nahi izan dira, maneian kontuan hartu beharreko puntu nagusiekin batera noski: lur lan eta laboreetatik

hasi, eta ureztapen, aireztapen, txandakatze zein baldintza sanitarioen kudeaketara arte», azaldu zuten aurkezpenean.

Halaber, lana ulertzeko ezinbestekoa da Euskal Herriko kantauri isurialdeko baratze ekologikoen ézaugarriak kontuan hartu dituztela jakita: klimatologia euritsua eta hezea, argi gutxiko baldintzak, materia organikoan oso aberatsak diren lurrak, eta baratzak produktiboki intentsiboak eta oso dibertsifikatuak.

Gainera, nekazaritza ekologikoaren irizpidetan oinarritutako erabilera hartu da aintzat: lurra- ren emankortasuna zaintzea, biodibertsitatea kultiboetan eta ingurunean lantzea, eta sintesi kimikoko produkturik eta transgenikorik erabili gabe barazkiak ekoiztea.